



GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILA

Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza
*Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta
Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Viceconsejería de Relaciones Institucionales
*Dirección de Relaciones con las Administraciones
Locales y Registros Administrativos*

EBAZPENA, TOKI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA ADMINISTRAZIO ERREGISTROETAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 2021EKO MAIATZAREN 5EKO EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GAIKUNTZA NAZIONALA DUTEN TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK BITARTEKO BIDEZ BETETZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2016ko otsailaren 11ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioeko funtzionarioen azpieskaletako lanpostuak aldi baterako betetzeko lan-poltsa bat eratu zen.

2021eko maiatzaren 5ean argitaratu zen Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendariaren Ebazpena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan gaikuntza nazionala duten toki administrazioeko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko bidez betetzeko hautagaien zerrendak kudeatzeko jarraibideak.

Alabaina, hautagaien zerrenden kudeaketari buruzko jarraibideak onartu zirenetik igaro den denbora ikusita, eta indarrean dagoen araudiaren alderdi batzuk hobetu eta egokitu behar direla ikusita, bereziki hiru hilabetetik beherako iraupena duten eskaintzei uko egitearen ondorioei dagokionez, beharrezkotzat jotzen da horiek puntu horretan aldatzea.

Ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 11. artikuluekin bat etorriz, honako hau

XEDATU DUT

Artikulu bakarra.- Onartu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioeko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko funtzionario bidez hornitzeko hautagaien zerrendak kudeatzeko jarraibideen aldaketa, eta ebazpen honen eranskin gisa txertatzen da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.- ERREKURTSOAK.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Erakunde Harremanetarako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan, hargatik eragotzi gabe zuzenbidean onartutako edozein aurkaratze-bide erabiltzea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.- ONDORIOAK.

Ebazpen honek ematen den egunetik bertatik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean

Miren Josune Irabien Marigorta
**TOKI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA ADMINISTRAZIO
ERREGISTROETAKO ZUZENDARIA**

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GAIKUNTZA NAZIONALA DUTEN TOKI-ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK BITARTEKO BIDEZ BETETZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN ALDAKETA.

Lehenengoa.- Paragrafo berri bat eransten zaio Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko funtzionario bidez hornitzeko hautagaien zerrendak kudeatzeko laugarren jarraibidearen bigarren atalari, eta honela geratzen da idatzita:

«2.- Gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioei gordetako lanpostuak hornitzeko sistemak aintzat hartuta, ezin izango da aldi baterako mugarik ezarri, lanpostuak betetzeko gutxieneko epea ezin delako ziurtatu.

Alabaina, eskaintzari uko egiteak ez ditu hamabigarren jarraibidearen bosgarren atalean aurreikusitako ondorioak izango, eskaintzaren arrazoia gaikuntza nazionalako funtzionarioentzat gordetako lanpostuaren eginkizunak betetzen dituen pertsonaren lanerako ezintasun iragankorra edo antzeko arrazoiren bat izanik, aurreikusten bada lan-eskaintzaren iraupena hiru hilabete baino gutxiagokoa izango dela».

Bigarrena.- Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko funtzionario bidez hornitzeko hautagaien zerrendak kudeatzeko jarraibideen hamabigarren jarraibidearen 5. atala, eta honela idatzita geratzen da:

Honakoa dioenean:

«5.- Aurreko atalean adierazitako prozeduraren arabera lanpostu baterako hautaketari uko eginez gero, eskainitako azpieskalari dagokion hautagaien zerrendako azken lekura pasatuko da hautagaia».

Hau esan behar du:

«5.- Laugarren jarraibideko bigarren atalaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, aurreko atalean adierazitako prozeduraren arabera lanpostu baterako hautaketari uko eginez gero,

eskainitako azpieskalari dagokion hautagaien zerrendako azken lekura pasatuko da hautagaia».